

# PRESO POLITIKOA

Wladimir Herzog suizidatu egin omen da Sao Paulon. Baina gartzelan, gartzelan gertatu da. Urkatu egin omen du bere burua. Urkatu egin du, ala urkatu egin dute gartzelariak? Sekula ez da jakingo.

Nik ez dakit ezer, Wladimir Herzog zein zen, eta ez dit asko inporta ere. Bakarik dakit zein arrazoi santurengatik, Gobernu batek Brasilen beste eritzi politikoetakoak preso sartzen dituela. Torturatu egiten dituela. Itikidatu egiten dituela. Kontserbazaleak, liberalak, sozialistak, komunistak, apaizak, edozelakoak. Kontrarioak. Wladimir Herzog periodista omen zen. Kontserbazale liberala, gainera.

Baina preso politikoa, periodista izan ala nekazari izan, ala norbaiten andregai besterik ez izan, ezer ez da, preso politiko besterik, Inor ez da, preso politiko hutsa besterik.

1975 urtean 119 preso politiko "galdu" omen dira Txilen, aztarrenik utzi gabe. Haize bihurtu dira nonbait. Harrez gero mila eta gehiago omen dira gartzeletan desagertuak. Harrez gero inork ez daki haien berri.

Argentinan ez dira gutiago desagertzen, gartzeletan nahiz kalean. Herbestean ere berdin desagertzen dira, inoiz Gobernuaren kontra azaldu diren argentinok. Hiru AAA santuak munduan barrena dabiltza.

Argentinan, preso politikok defendatu izan dituzten sei abogadu, hil dituzte azkeneko denborotan. Beste hamasei preso daude berak ere. Hogei eta sei, heriotze mehatsuak hartu edo atentadoak izan ondoren, ikaraturik daude.

Preso politikoaren abogadu izaterik ez dago. Preso politioak ez du defentsa posibilitaterik, haren defentsa beti da eta kontra-akusazio bat.

Preso politikoaren aita, ama, anaia, izaterik ez dago. Haien esistentzia, haien pertsonarik izatea, kontra-akusazio bat da. Preso politikoa ez da pertsonarik. Ezin izan daiteke pertsona artekoa.

Hiru milatatik pasatzen dira Argentinako preso politikok. Hamar milatatik gora dira Sobiet Batasuneko preso politikok. Hogei ta hamabost mila ta gehiago Indonesian... Berrogei ta hamar milatik gora Indian. "Hau mundu zoragarria"!

Eta zenbait dira Rodesian, Urugauyen, Persian, Sudafrikan, Cuban, Alemanian, Polonian, Txinan, Ingalaterran, USA-n...?

Giza eskubideen artean eritzi askatasuna dago deklaraturik. Giza eskubideen artean, edozeinen defentsa zuzenerako es-

kubidea dago deklaraturik. Diren ez eta ez diren deklarazio eta akklarazio eta konstituzio guzietan kondenaturik dago tortura. Askok balio diote paper horiek preso politikoari!

Egia, Etiopia oso urruti dago. Eta egia, Idi Amin ero bat da, ero hutsa. Eta Pinochet faxista da, zer nahi duzu egite... Eta abar.

Baina egia, azkenean, egiazko egia, hori da: preso politikok ez du aberririk, mundu guzikoak da. Hori da gizadiaren peste beltza. Estatu zibilizatuen eta Estatu basatien peste beltza.

Ez digu inporta preso politikoaren koloreak. Epailen politikoaren kolore gabeziak inporta digu: beti mekanismo berbera bait da, preso politikoa kondenatzen duena, sistema zurietan, gorrietan ala urdinetan. Hitlerrek kondenatu eta garbitu zituenak "erreazionarioak" ziren, esaten zuten Hitlerzaleek. Preso politiko guziak dira erreazionarioak, kondenatzailearen begiek ikusita. Ez digu inporta zer diren. Kondenatzen dituen mekanismoak inporta digu.

Sortaldean, sartalldean. Oraindik, batzuetan, satisfazio piska hori gelditzen zaio bati, mundu triste honen tristura guzietan erdian: presoak preso kontsideratzea, eguzkipeko edozein alderditan anaia sentitzea eta gure ordeko sentitzea. Nahiz eta aspaldian jakin, ez omen dagoela mundua horrela interpretatzerik, aldatu egin behar baldin bada... Burlak burla, hobe "humanista" burlatu, hori dena ikusten ez dakien itsu baino. Preso politiko guziak dira gure anaia. Gure ordekoak dira. Haien orde ari gara.

Hori da, libre dabilenari gelditzen zaion satisfaziotoxa, suizidatu den preso politikoarengatik ez suizidatzeko bera. Momentu honetan, ni idazten ari naiz, neure gelan, eta munduko ez dakit zenbait gela zikinetan norbait torturatzen ari dira. Milaka eta milaka preso daude eta, beharbada, inoiz irtetzeko esperantzarik ere ez dute.

JOXE AZURMENDI

# OIHUTXOAK

## ERRENDERIKO BLASFEMIA

Apirilak 6 zituen. Iluntzeko zazpiak eta erdi. Eta Errenteriako herriaren bihotz bihotzean, Andre-mari eliz nagusiaren eta udaletxearen artean dagoen enparantzan (General Mola izendatzen omen da oraindik ofizialki) mila eta erdiren bat ikusle eta entzule ginen.

Aurretik, Herri Asanblada deitzen dieten bilkura horretara Errenteria osoa abixatua zegoen. Laister 50 mila biztanle izango ditu Errenteriak.

Aberri Eguna gainean zelarik, horrelako Eguna zer behar zuen izan, eta borrokarako ez bazen, zertarako? Horixe zen gai bat. Eta Euskadiren nazional eta sozial arazoak nola elkar uztarturik Gasteizera eraman behar ziren, bestea.

Megafono baten bitartez zenbait hizlari nola edo hala mintzatu ziren. Euskerari ere leku pixkat egin zitzaiola, aitordezagun.

Txoko honetan ezin xehetasun askorik eman.

Baina emakume batek deihardarkatu zituen hitz batzuk gelditu bitez hemen, gure euskal jendeak epaitu ditzan.

Langileriarentzat ez dagoela ez aberri mugaturik, ez aberrien arteko bereiztasunik; bai, ordea edozein aberrien gaitetiko klase langile borrokalari eta denok berdintzen gaituen bat... hots egin ondoren, hara zer esan zion jendeari, garraxika eta erderaz noski, emakume botoretsu hark: "Euskadiren alde hil direnak, klase baten interesak (burgesenak, alegia) defendatzearen hil dira".

Protestazko hots haundi batzuk lehertu ziren. Baina hango asanbladaren buruzagiek aurrera ekin zioten batzar iskanbilatsu hari.

Horrenbeste odolez jasotako abertzaletasunari bota zaio aurpegi birao likits hori ere. Lehen blasfemia asko Euskalherriaratu zizkiguten norbaitzuek. Gaur blasfemia berri eta lerdegarri hori sartu digute gure lurrean.

Poztuko dira, bai, Herri honen etsaiak. Baina esnatu bitez gure euskal izamena maite duten guriak.

ANAIA